

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Igorre



Aurkibidea

Udalerria: Igorre

Sarrera



Arratia haranaren behealdean dago eskualdeko gune nagusi hau. Igorre-Elexalde hirigunea auzo txikiz inguraturik dago, hauek dira auzorik garrantzitsuenak, Basa untz, San Joan, Santa Lutzi, San Kristobal eta Urkizu. Herri hauek ditu mugakide: Iparraldetik, Lemoa; Hegoaldetik, Arantzazu eta Zeberio; Mendebaldetik, Bedia eta Ekialdetik, Dima. Mendebaldeko euskararen barruan Arratiako euskararen barruan kokatzen da igorretarren hizkera.

- **Biztanleak:** 4.100
- **Euskaldunak:** %78,1

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **8**
- Zintak: **7**
- Pasarteak: **72**
- Transkribatutakoak: **6**
- Audioak: **11**
- Bideoak: **61**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- Euskal Herriko Ahotsak
- IRLAren Bizkaiera Bilduma
- Ziortza Intxaurragaren fondoa
- Zornotzako ahotsak

Hizlariak

Bonifazio Arandia Uriarte *Fasio* (1909-1987)



Igorreko Elexalde auzoan jaioa. Soinujole ezaguna izan zen. Hamahiru urterekin hasi zen plazan jotzen. Urte askoan utzita egon ondoren, 1971n berriz ekin zion eta txapelketa bat irabazi zuen. Arteagako Benantzio Bernaola "*Karakol*" hil ondoren, beronen emaztea zen Maurizia Aldeiturriaga pandero-jotzailearekin eta [Leon Bilbao](#) albokariarekin batu zen entzute handiko hirukotea osatzeko. Bizkaiko trikiti estiloa zabaldu zuten plazarik plaza. IRALEko kideek elkarriketa egin zioten 1985ean.

Basili Eiguren de la Torre (1909-2011)



Bera jaiotzean ama hil zitzaion eta ordezeko gurasoek hazi zuten. Aita Utxetxebarri baserrikoa zen eta ama Zeanurikoa. Bizitzarik gehiena Utxetxebarrin bertan igaro zuen, ezkondu ere bertara ezkondu zelako. Gerora Igorreko kalean bizi izan da. Senarra soinularia zuen eta hurretik ezagutu zituen garai bateko erromeria eta jaiak. Lanbidez jostuna ('jorskilea') izan zen hainbat urtez. Elkarriketa egiteko unean 100 urte bete berri zen. Grabazioan, elkarriketatzailearekin batera, hitzunaren iloba ere azaltzen da tarteka.

Brigida Egizabal Zubero (1924-2013)



1924. urtean sortu zen Igorreko Olabarri baserrian 5 neba-arrebako familia batean. Aita Usansolokoa (Galdakao) zuen eta ama Dimakoa. Moja karmeldarren ikastetxera joan zen umetan eta gero neskame lanetan ibili zen Donostian eta Hernanin. Senarra Hernanin bertan ezagutu zuen eta 19 urterekin Zornotzara joan ziren bizitzera. Zornotza bertako "Cines Zelaiaeta" aretoko txarteldegian aritu zen lanean 17 urtez.

IGO-001 Hizlari ezezaguna

IGO-002 Hizlari ezezaguna (1940)

Benita Inuntziaga (1915-2015)

Igorretarra. 1986an, 70 urte zituela, kanta zaharrak jasotzeko egindako elkarriketa.



Juana Larrabide Etxebarria (1904-1999)

Igorreko San Juan auzoko Egia baserrian jaio zen. 1986an, 81 urte zituela, kanta zaharrak jasotzeko egindako grabaketa.

Justo Lekue

Igorrekoa. 1986an, 74 urte zituela, kanta zaharrak jasotzeko egindako grabaketa.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Baserria

1.1. Porruak saltzera Bilbora

- **Hizlaria(k)**: Egiguren de la Torre, Basili
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: IGO-003/023
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:49:26. **Bukatu**: 00:51:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- **Laburpena**: Porru asko bazuten etxean, Bilbora saltzera joaten ziren. Zela moldatzen ziren kontatzen du.

Transkripzioa

-Eta zeu be baserriko gauzak-eta saltzera-eta joaten zinen?
-Bai joaten nintzen, joaten nintzen porru asko, porruak ipini ta asko ta ondo urten ezker porru denboran goxian bost terdietan edo pasaten zan trena hor bagoiagaz ba tranbie atzean bagoia degula kargamentureko. Ta zuk zakuek sartute garbitu ta prestaute iminten zenduzen txortak eginda etxean bezperan, bezperan edo aurreko egunean, ta eroaten zenduzen zakukadak San Antoneraino. Ta San Antonen bajatu, baia bakarrik joan ezin, ze zakue bajatu orduneran gora eroateko andrak ezin eroan ta [geixei batera] eruten bozu, ta zaku bat bano gehio eroan, ba han behean batemat itxi ezik bi buelta orduko ostu ta hiru-lau lagun junteu ta zureak hiru zaku edo zaku bi ta nireztat nireak be bai ta holaixe. Ta gero bat jagoten behean ta besteak han goien hartu mahaitxuek ta ba pagau ha zera mahaitxue pagau ta gero bakotxa bere zeretara.
-Eta mahaie ze zan, bertan egunien pagatzen zan?
-Bai, bertan josite, uste dot zala holaxe paluek honexek e sarrerako modukoak, bitarte dekunek, listoia ta hutse, listoia ta hutse. Librea, holakoxe zertxuek.
-Orduan, Arratiako jendea-ta San Antonera hara joaten zan saltzera,

baserriko kontuak eta saltzera.

-Bai, San Antongo eskilatan itxi, haraxeño eroan ta jagoten egon bata ta besteak eroan. Hemetik aldeko eskilaretatik joan ezkerro urrin igo behar goraino ta astiro ein behar, neskak kantsaute deskantsau ta holantxen.

-Orduan beti tranbian, tranbia inportantea zan orduan.

-Bai bai.

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. `Josepa Antoni´ kanta

- **Hizlaria(k):** Inuntziaga, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Intxaurraga, Ziortza
- **Erref:** IGO-010/001
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** `Josepa Antoni´ kanta.

Transkripzioa

Josepa Antoni, koloregorri
kapitan baten alaba,
aitek doterik emon ez arren
ez doste ardura senarra.

Ezkonduko naz astelehenian,
martitzenian basora,
eguaztenian orri batzian,
eguenian etxera.

2.2. `Begire nago begire´ trikiti-kopla

- **Hizlaria(k):** Inuntziaga, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Intxaurraga, Ziortza
- **Erref:** IGO-010/002
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:00:35. **Bukatu:** 00:01:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** `Begire nago begire´ trikiti-kopla.

Transkripzioa

Begire nago begire
ai! goiko kamiño barrire
ai! noz etorriko ete da
ai! neure laztana herrire
ai! neure laztana herrire
ai! begire nago begire.

2.3. `Aita-semeak´ kanta

- **Hizlaria(k):** Inuntziaga, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Intxaurraga, Ziortza
- **Erref:** IGO-010/003
- **Iraupena:** 0:00:22. **Hasi:** 00:01:00. **Bukatu:** 00:01:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** `Aita-semeak´ kanta.

Transkripzioa

Aite ta seme tabernan dagoz
ama ta alaba jokuan
ostera bere egongo direz
txahaltxu nabarrak euzoan
txahaltxu nabarrak euzoan eta
aite ta seme tabernan.

2.4. `Tiriki traiku traiku´ kopla

- **Hizlaria(k):** Inuntziaga, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Intxaurraga, Ziortza
- **Erref:** IGO-010/004
- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 00:01:22. **Bukatu:** 00:01:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** `Tiriki traiku traiku´ kopla.

Transkripzioa

Tiriki traiku traiku
mailluaren hotsa
tiriki traiku traiku
mailluaren hotsa
noz ezkonduko ete da
geure neska motza
tiriki traiku traiku
geure neska motza
la la la ra...

2.5. `Ederregia zara´ trikiti-kopla

- **Hizlaria(k):** Inuntziaga, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Intxaurraga, Ziortza
- **Erref:** IGO-010/005
- **Iraupena:** 0:00:22. **Hasi:** 00:01:48. **Bukatu:** 00:02:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** `Ederregia zara´ trikiti-kopla.

Transkripzioa

Ederregie zara
soluan biharrerako
hartuixu kaballerua
kalian pasiatzeko
kalian pasiatzeko
hartuixu kaballerua.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Eskolan mojekin (IGO-003/002)

Herriko eskolan erdaraz bakarrik erakusten zuten. Mojetan euskaraz eta erdaraz erakusten zuten eta kuota bat ordaintzen zuten. Hamabost urtera arte egon zen. Jostea gustatzen zitzaionez, ikasten ibili zen. Jostun baten etxean aritu zen lanean.

2. Jostun etxerik etxe (IGO-003/003)

Josten ikasitakoan, etxez etxe ibili zen arropak josten, ezkondu zen arte. Jostea gustatu egiten zitzaion. Pezeta biko jornala izaten zuen eta propina ere ematen zioten.

3. Frakei "atze-aurrea" egiten (IGO-003/004)

Frakak zela konpontzen ziren kontatzen du: "atze-aurrea" eginda. Gauez ere josi egiten zuen etxean.

4. Basili lapurtu zutenekoa (IGO-003/006)

Zazpi urte baino gutxiago zituela, aita-amak soroan auzolanean ari zirela, hiru andre etxera joan eta Basili eraman egin zuten. Aita bila joan zitzaion, aguazilak lagundu zion eta topatu egin zuen.

5. Mojek egindako ostiak (IGO-003/010)

Eugenia, Cristina, Juana eta Maria ahizpak izan ziren bere mojetako irakasleak. Bakoitzaren zereginak aipatzen ditu. Etxeetatik batutako garia eho eta ostiak egiten zituzten, Arratiako elizetara banatzeko. Moja gehienak euskaldunak ziren.

6. Barre egiteko esaerak (IGO-003/012)

Eskolako liburuak erdaraz izaten ziren baina euskaraz egiten zuten denen artean. Barre egiteko esaerak erabiltzen zituzten.

7. Igandero erromeria (IGO-003/013)

Erromerietara inguruko herrietara joaten ziren. Igorren igandeetan soinularia izaten zen eta "aimarietan" etxera joaten ziren. Soinulariak kobratu egiten zien dantzarietara eta udalak ere ordaindu egiten zion soinulariari. Nobioa izan zuen soinularia.

8. Soinularia eta txistularia (IGO-003/014)

Igorreko erromeriara etortzen ziren inguruetatik. Soinularia eta txistularia egoten ziren. Soltean eta helduta egiten zuten dantzan. Nobioa izan zuen soinularia, filarmonika jotzen zuena, baina hil egin zitzaion eta haren anaiarekin ezkondu zen.

9. Igorreko jaiak (IGO-003/015)

Igorren erromeria egiten zen eta Zornotzan eta Galdakaon ere bai. Abuztuko Andra Marietan izaten ziren herriko jaiak. Herriko ermitetako santuak izendatzen ditu. Haietan ere erromeria egiten zen.

10. Maurizia eta Leoni buruzko kontuak (IGO-003/016)

Maurizia eta Leon ezagutu zituen. Haiek ez zuten derrigorrik eta tarteka jotzen zuten. Leonek alboka jotzen zuen eta zerbait ordaintzen zioten.

11. Gerratik ihesi beldurrez (IGO-003/020)

Gerran beldur handia pasatu zuten. Hegazkina zetorrenean, ezkutatu egiten ziren. Igorren ez zuten bonbarik bota baina soro batera hegazkina erori zen. Ihes egiteko abisua jaso orduko, etxetik joan ziren idiak eta gurdia hartuta. Usansolo inguruan egon ziren.

12. Igorreko Batzokia (IGO-003/021)

Igorren Batzokia non zegoen kontatzen du. Gerra garaian soldaduentzako galtzerdiak egiten zituzten han. Alkatea txandaka izaten ziren nazionalista eta karlista.

13. Tranbian ibiltzen ziren beti (IGO-003/022)

Tranbian ibili izan da beti. Umetan tranbia herrira sartu aurreko momentuari buruzko pasadizoa kontatzen zioten. Geltoki asko izaten zituen tranbiak. Zeanurin hasi eta Bilborainoko bidea egiten zuen tranbiak orduro.

14. Plazak eta feriak (IGO-003/024)

Domeketan Billarora joaten ziren asko plazara saltzera. Basili ez zen joaten. Igorren ez zen plazarik egoten. Zapatuetan feria egoten zen Arratiako herrietan txandaka.

15. Hika mutilek bakarrik (IGO-003/025)

Igorren euskaraz egin izan dute beti. Mutilek egiten zuten hika elkarrekin baina neskek ez, zatarra zela uste zutelako. Umeei ere zuka egiten zieten.

16. Inguruko herrietako euskara (IGO-003/026)

Zeanuri eta Igorreko euskara antzekoak direla dio, berba batzuk tarteko. Zornotzatik Durangorantza edo Gernikarantza doinua aldatzen dela dio.

17. Senarrarekin euskaraz ezin ulertu (IGO-006/003)

Igorren jaio zen eta Zornotzara ezkondu. Igorreko euskara egiten du. Zornotzan ez dela euskara asko egiten dio. Senarra Hernanikoa zuen eta gaztelaniaz hitz egiten zuten elkarrekin, euskaraz ez ziotelako elkarri ulertzen. Seme-alabei euskaraz.

18. Hernanira neskame joan zenean ezagutu zuen senarra (IGO-006/005)

18 urterekin Donostiara joan zen neskame. Etxe batean egon zen, baina ez zitzaion gustatu eta handik Hernanira joan zen. Han ezagutu zuen bere senarra izango zena. Hernanin lantegi jabeak ziren Mendiatarren etxean egon zen.

19. Neskametzan irabazitako dirua arropak egiten gastatu (IGO-006/007)

Hernanin neskame egon zenean, hilean hogeita hamar ogerleko kobratzen zituen. Behin aita joan zitzaion Hernanira, zer moduz zebilen ikustera. Dirua eskatu zion, baina berak dena gastatuta zuen ordurako, arropa berriak egiten. Pinpirina izan dela dio.

20. Ezkondu aurretik oheratzea bekatu; abadearen asmoak (IGO-006/010)

Senarra "sano guapoa" omen zen. Ezkondu aurretik ez zuen harekin ohera joan nahi izan, bekatu handia zelako. Musuak bai. Abadearengana konfesatzera joan zenean, galdera ugari egin zizkion eta bere etxera joateko zita jarri zion. Bera, badaezpada, zaintzen zituen umeak hartuta joan zen abadearen etxera.

21. Zinemaren prezioa; azken lerroa bikoteentzat (IGO-006/016)

Zinema zenbat ordaintzen zen. Pertsona zehatz batzuentzat (Udaleko kideentzat, adibidez) erreserbatuta egoten ziren leku batzuk. Azken lerroa bikoteentzat. Inspektoreak ere joaten zitzaizkien, baina eskupekoa emanaz gero, den estaltzen zela dio. Pelikulan pertsonak biluzik agertuz gero jartzen zituzten isunak.

22. Zinemarako zaletasuna zuen jendeak (IGO-006/020)

Jendeari asko gustatzen zitzaion zinemara joatea. 18 pezeta izaten zen. "Sesión continua" egoten zen, baina gehiago ordaindu behar izaten zen.

23. Gerra garaiko bizipenak (IGO-006/024)

Gerra garaiko bizipenak. Soldadu batek behia kendu gura izan zion aitari eta berak aurre egin zion. Nebak soldadu izan zituen. Ahizpa Larrinagako kartzelan egon zen, milizianoei arropa jostearren.

24. Ahizpa Larrinagako kartzelan (IGO-006/026)

Beste jostun askoren antzera, Brigidaren ahizpa ere Larrinagako kartzelan egon zen, gudariei arropa jostearren. Ama joaten zitzaion bisitan. Berak 12-13 urte inguru zituen eta ez zioten uzten joaten. Nebak frontean ibili ziren. Ahizpa gazteagoa eta bera etxean.

25. San Juan bagilean... (IGO-006/031)

"San Juan bagilean, denpora ederrean, zapoak eta sugeak erre, artoak eta gariak gorde".

26. `Anttoni eta Antton´soinuarekin jota (IGO-007/001)

`Anttoni eta Antton´ doinua jotzen du soinuarekin.

27. Noiz eta nola hasi zen soinua jotzen (IGO-007/004)

12 urterekin hasi zen soinua jotzen ikasten, gurasoek barraketara joan eta ilara bateko soinu txiki bat ekarri ziotenean. Gero, Arantzazuko `Popon´ soinu-jotzailearekin ikasi zuen apur bat. Eta Bilboko bat ere etortzen zitzaion, lezioak ematera. Euren sasoian ez zegoen trikitilari asko Arratian. Gaztetan herriz herri ibiltzen zen. Urtebetez Lemoako plaza izan zuen, gero Areatzakoa eta gero Igorrekkoa. Oso urduria da eta, txarto pasatzen zuenez, utzi egin behar izan zuen. Gerora hasi zen berriz.

28. Gipuzkoako eta Bizkaiko jotzeko era; fandangorik ez Bizkaian (IGO-007/005)

Bizkaiko eta Gipuzkoako jotzeko era desberdina izan da, baina berdinduta dagoela dio, grabazioei esker ikasi egin daitekeelako. Adibide moduan, Bilboko Errekaldeko Kepa eta Zabaleta aipatzen ditu. Gipuzkoan trikitilari hobeak. Fandangoa ez da ezagutu izan Bizkaian; euren gazte denboran "jotea, baina beti bere kanteagaz".

29. Soltekoagatik txakur txikia kobratzen zuen eta lotukoagatik bikoitza (IGO-007/009)

Euren gazte denboran erronomia asko egiten ziren eta jende guztiak dantza egiten zuen. Igorreko plaza izan zuenean, bi solteko eta lotuko bat jotzeko agindua zuen. Soltekoagatik txakur txikia kobratzen zuten eta lotukoagatik bikoitza. Abadeek "infernuko hauspoa" esaten zioten soinuari. Ez zuten nahi izaten lotukorik jotzerik, bekatua zela eta.

30. Trikiti-koplen hitzak panderojoleek asmatuak (IGO-007/011)

Trikiti-koplen letrak panderojoleek asmatzen zituzten: aurrekoei entzundako kontuak edo ikusitakoak. Maurizia pandero-jotzailea. Pare bat kopla kantatzen ditu.

31. Irabaziak ganbarako zulo baten gordetzen zituen (IGO-007/012)

"Klub Arratia" futbol taldearekin asko ibili zen, soinua hartuta, batera eta bestera. Kotxea alokatzen zuten. Andreak zenbat diru gastatzen zuen galdetzen zion. Berak soinua jotzearen truk ibiltzen zela esaten zion eta, irabazirik baldin bazeukan, ganbarako zulo baten ezkutatzen zuen, bere gastuetarako. Andreak arrazoiarekin haserretzen zela dio, askotan berandu etxeratu eta zuzenean lanean hasi behar izaten zen eta. Andreak egiten zizkion mehatxuak.

32. Garai bateko parranda giroa (IGO-007/014)

Garai bateko giroak ez zuen zerikusirik oraingoarekin. `Txilibrin´ekin egiten zituen parrandak. Afariak egin, soinua jo, dantzan egin... Gerra aurretik mutilak harizko frakekin ibiltzen ziren; dantzan jardunda, izerdiarekin bustita izaten zituzten. Lehertu arte lanean jarduten zuten, orduan aurrerapenik ere ez zegoen eta, baina hala ere parrandarako beste giro bat izaten zuten.

33. Pasodoble zaharra (IGO-007/016)

Garai batean erromerietan jotzen zuen pasodoble zahar bat jotzen du. Jendeak dantza loturako zaletasuna izaten zuen, nahiz eta txarto egin. Mutilek neskek hurreratzeko baliatzen zuten.

34. Futbolearen ari ziren bitartean ez jotzeko agindua (IGO-007/020)

Abadeekin inoiz ez du izan arazorik. Behin Arratia futbol taldearekin Zamudiora joan zirenean, futbola ari zen bitartean ez jotzeko esan zieten, arbitroaren txilibitua ez zela entzuten eta.

35. Lotukoa jotzeagatik atxilotu (IGO-007/022)

San Kristobal jai batzuetan Igorren jotzen zegoela, zinegotzi batek debekatu egin zion lotuko piezak jotzea. Zinegotziak etxera joateko itxura egin zuen eta berak lotukoa jo zuen orduan. Guardia eta guzti itzuli zen eta atxilotu egin zuten 'Fasio'. Gaztetxoa zen eta negar egin zuen guardiak ikusi zituenean. Bekatu handia zen lotuan dantza egitea, nahiz eta denek hori gura. Zeanurin ez zuten uzten; txistua bakarrik egoten zen.

36. Koloretako alkandorekin arazoak San Justoko erromerian (IGO-007/023)

San Inazioetan Gorbeira joan ziren behin. San Justo ermitaren inguruan jotzeko tratua egin zuten, 500 pezetaren truk. Gerraostea zen. Zazpi koloretako alkandorak zeuzkatela eta zinegotziak guardia zibilei deitu zien, nazionalisten koloreak zirela eta. San Ferminetarako egindako alkandorak ei ziren. Guardiiek baimena eman eta berriz jotzen hasi ziren kamioi gainean. Txaloka hasi ziren denak eta zinegotziak gehiago jotzea galarazi zien.

37. Trikitia, 'Fasio'ren eskutik (IGO-007/029)

Trikiti bat jotzen du.

38. Porrusalda, 'Fasio'ren eskutik (IGO-007/032)

Porrusalda bat jotzen du.

39. Gerratean etxean zituen bi soinuak kendu (IGO-007/033)

Erosi zuen soinu zahar baten inguruko kontuak. Sitsak jan zuen eta saldu egin zuen. Gerra sasoiaren etxean zituen bi soinuak ostu zitzioten.

40. Urte osorako plaza hartuta: igandero joan behar (IGO-007/035)

Garai bateko erromerietan soinua eta dultzaina; alboka inoiz ere ez. Lemoako plaza eduki zuen urtebetez eta igandero joan behar izaten zen bertara. Gerora, Areatzakoa eta Igorrekia ere eduki zituen. Bakarrik joaten zen normalean; panderojolea jaietan bakarrik. Berak plazako lekuri onena izaten zuen, baina batzuetan soinu-jotzaile gehiago ere joaten ziren. Dantza egiten zuenari kobratzen zitzaion soinu-joleari ordaintzeko. Lemoako plazan urte osoan jotzearen 50 ogerleko eman zitzioten.

41. Areatzako plaza eduki zueneko kontuak (IGO-007/036)

Areatzako plaza eduki zueneko kontuak. 15 urte inguru izango zituen. Hogeita hamar ogerleko ordaindu behar ziren soinua jotzearen (zerga moduan?) eta berak diru hori eskatu zuen. Dultzaineroa ere bazegoen, baina jendeak lotuko piezak nahi. Urtea amaitu eta Igorrera joan zen eta, azkenean, ez zioten ordaindu.

42. Dirua "zelan etorri, halan joan" (IGO-007/037)

Dirua "zelan etorri, halan joan". Sasoi hartan hamar ogerleko irabaztea asko zen. Dirua irabazi zuela eta afaltzen gelditu eta, azkenean, dirua xahututa etxera!

43. Alboka doinuak soinuarekin: "Arratiako jotea" (IGO-007/045)

Albokarekin jotzen ziren doinuak jotzen ditu soinuarekin. Lehenengoa: "Arratiako jotea".

44. Alboka doinuak soinuarekin: "Porrue" (IGO-007/046)

Albokarekin jotzen ziren doinuak jotzen ditu soinuarekin. Bigarrena: "Porrue".

45. Alboka doinuak soinuarekin: kalejira (IGO-007/047)

Albokarekin jotzen ziren doinuak jotzen ditu soinuarekin. Hirugarrena: kalejira.

46. Baserria ustiatzen zuten senide guztien artean (IGO-008/002)

Baserrian bizi ziren. Nahiz eta aitak Bilboko fabrika batean egiten zuen lan, senideen laguntzari esker baserria ustiatzen zuten. Etxerako behar beste jaki lortzen zuten bertatik. Eskean etortzen zirenei esnea ematea gustatzen zitzaion Begoñaren amari.

47. Igorreko moja eskolan ikasketak (IGO-008/003)

Aitaren arreba batzuk ez beste mojarik ez da egon familian. Igorreko mojen eskolan egin zituen ikasketak Begoñak.

48. 36 urterekin Donostiako nobizio-etxera (IGO-008/005)

36 urte zituen Donostiako nobizio-etxera joan zenean. Lehenago ere joan nahi izan zuela aitortzen du baina, ama alargundu zenez, etxean geratu behar izan zuen.

49. Lau urte eta erdiko nobiziotza (IGO-008/006)

Lau urte eta erdi igarotzen ditu nobizia batek prestaketa egiten. Ikasketa eta bizimoduari buruz dihardu. Ikastaldia amaituta, etxera bueltatzen ziren eta handik aukeratutako lekura. Begoñaren kasuan, Eibarko komentura.

50. 30 moja eta lau nobizia (IGO-008/008)

50. hamarkadaren amaiera aldera 30 moja eta lau nobizia zeuden Eibarko komentuan. Nobiziak aparte egoten zirela kontatzen du. jatorduak eta "errekrea" egiten zituzten elkarrekin.

51. Eguneroko bizimoduaz (IGO-008/009)

Eguneroko bizimoduari buruzko azalpenak ematen ditu: ordutegia, errezoak, eginbeharrak, antolaketa, etab. Iluntzeko "errekrea" elkarrekin hitz egiteko aprobetxatzen zuten. Eguneko gainontzeko orduetan isiltasunean egon behar izaten zutela kontatzen du nahiz eta beti zegoen oso zaila egiten zitzaionik.

52. Abadesaren eginbeharrak (IGO-008/010)

Eibarko komentuko egonaldiko azken urteetan abadesa izan zen Begoña. Eginbeharrei buruzko azalpenak ematen ditu.

53. Ortuko barazkiak etxerako (IGO-008/011)

Lur-eremu zabalak zituen komentuak inguruan. Ortuko barazkiak etxerako erabiltzen zituztela kontatzen du. Oiloak eta behiak ere bazituzten.

54. Eibartarrekin harremana (IGO-008/012)

Mintzategira jendea bisitan etortzen zen. Nolakoa zen kontatzen du. Nahiz eta batzuetan kanpotik ekartzen zieten zerbait, ez zuten normalean ezeren beharrik izaten.

55. Brodatuak enkarguz (IGO-008/013)

Brodatuak egiten zituzten enkarguz. Ordainetan borondatea eskatzen zutela kontatzen du. Elizetako ehun-gaiak lisatzen ere jarduten zutela dio.

56. Gerra garaian kongregazioko mojek Zeanurira joan behar izan zuten (IGO-008/017)

Gerra garaian kongregazioko mojak Zeanurira joan behar izan ziren Eibar utzita. Antza denez, kapilaua zen Zeanurikoa eta hark Zeanurin zituen etxebizitzetan egon ahal izan ziren Eibarko komentuko mojak istiluak iraun zuen bitartean. Gerra zibilaren ondorioz, Isasi kalean kokatzen zen komentua desagertu egin zen.

57. Sukaldean txandaka jarduten zuten (IGO-008/019)

Sukaldean txandaka jarduten zuten moja guztiek. Eguneroko jatorduei buruz dihardu.

58. Oso gutxitan irteten dira komentutik (IGO-008/020)

Senitartekoak bisitan etortzen zirela kontatzen du, hala ere, eurak ez ziren normalean komentutik inoiz irteten.

59. Mojen "errekrea" (IGO-008/021)

Errekrea elkarrekin hitz egiteko aprobetxatzen dutela kontatzen du barre artean.

60. Herritarrengandik bereiztuta elizan (IGO-008/022)

Elizan egoten zirenean herritarrengandik aparte, koruan egoten zirela dio. Gaur egun ia ez da horrela izaten. Meza ordutegi eta kopuruaz dihardu.

61. `Txikitxu polit hori´ kanta (IGO-010/006)

`Txikitxu polit hori´ kanta.

62. `Akarrakatan´ kanta (IGO-010/007)

`Akarrakatan´ kanta.

63. `Urkiolara joan´ kanta (IGO-010/008)

`Urkiolara joan´ kanta.

64. `Aitiaren bekokien´ kanta (IGO-010/009)

`Aitiaren bekokien´ kanta.

65. `Logure naz´ kanta (IGO-010/010)

`Logure naz´ kanta.

66. `Ababatxue lo eta lo´ lo-kanta (IGO-010/011)

`Ababatxue lo eta lo´ lo-kanta

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com